

PELLO ZUBIRIA

H5N1 birusa ez dago ahaztuta mundutarrez

Iazko udaberria bukatzearekin, hegaztien gripearen hotsak ahuldu eta desagertu bezain fite, H5N1 hizkiak ahaztu egin zituzten europarrek. Baina heldu da 2007ko neguazkena, urteroko gripe sasoia abiatu da berriro eta orain ohartu dira Mendebaldeko jendeak H5N1 ez dela gizakiez ahaztu.

HEGAZTI-GRIPEA PANDEMIA HILGARRI

bihurtzeko arriskuaz mintzatu zen Net Hurbil duela urtebete. Hamabi hilabeteren buruan, zer da berri? Era eskemati-koan, bi joera daude H5N1 birusaren garapena hurbiletik zaintzen dutenen artean. Alde batetik, aditu baikorrenek uste dute herrialderik atzeratueneren ere agintariak arriskuaz ohartuta daudela eta duela bi urte baino neurri zorrotza-koak hartzen dituztela, eta Tamiflu bezalako botikak azkar erabilia lortu dela infekzio fokoak deusezte.

Aldiz, behatzaile pesimistagoen ustez denbora kontua da: pandemia ari da egosten dagoeneko mundu osoan barreiatuta H5N1 irakiten dagoen lekutan, birusak laster mutazio bat edo batzuk edukiko ditu bere egiturari, giza-ki batetik bestera pasatzeko ahalmena lortuko du, eta orduan hasiko da pande-mia beldurgarria.

Interneten miaka hasita, harritzeko adina informazio aurkituko du irakur-leak H5N1 birusaz eta hegazti-gripearen arriskuez. Informazio serioa gaine-ra. Esate baterako, birusaren zenbaki-izena daraman H5N1 blogak bilduma aberats eta eguneratua eskain-tzen du. Hala ezagutu du *International Herald Tribune* egunkarian Donald G. Macneil-ek idatzi duena. Kazetari bere-zitu honen lehen baieztapena: 2006an hegazti-gripeak gehiago hil zuela 2005ean baino, eta honetan 2004an baino. Bigarrena: gripe mota honen hil-

kortasuna handitu egin dela, %43tik %61era. Hirugarrena, eta europarrok beldurraraztekoa: hegazti-gripearen kontrolik gabe dabilela Nilo eta Niger ibaien deltetan, gure muturren aurrean.

Zientzialariek ba ote dakite zer ari den gertatzen? AEBetako Minnesotako unibertsitatean gai hauetaz aditua den Michael Osterholm-i galdetu dio kaze-tariak. “Gai honi buruzko edozein bil-tzarretan, kafetegian mikrobiologo talde batekin solasean hasten bazara, laugarren zerbeza hartzerako mozo-rra kendu eta aitortuko dizute ez daki-tela zer ari den gertatzen. Birus honek izugarri umiliatu ditu zientzialariak”.

Paradoxak ere badira H5N1en orain arteko hedapenean. Gertatzen da, esate baterako, hegazti-gripearen izugarri hilko-rra delako –Ebola birusa bezainbat– gaixoari ez diola ematen denborarik gaitza inguruan asko barreiatzeko, lehe-nago hiltzen du-eta H5N1ek. Aldiz, denek ikaraz aipatzen duten 1918ko gripe espainiar hartan hilkortasun apala zuen birusak –%2– baina oso erraz transmititzeko gaitasunak eragin zuen denbora laburrean milioika herritar hil-tzea (50 milioi baino gehiago).

Gripe sasoia otsailetik maiatzera arte luzatzen da, eta horregatik, iazko ekai-netik ia aipatu ere ez da egin gaia. Iritsi da, ordea, otsaila eta albisteak berriro ugaritu dira. Berrikitan, Mosku eta inguruetan hiru aldiz azaldu dira hega-ti-gripearen aztarnak. Horren aurretik,

Munduko Osasun Erakundearen mapak erakusten du zein lekutan azaldu zen iaz H5N1 hilkorra; kolore ilunagoz etxeko hegaztien aurkitu denean eta argiagoan hegazti basatietan. Euskal Herrian azaldu ziren kasuak ere sartuta daude grafikoa. Maparen azpiko irudi txikiak AEBetako Ipar Carolinako estatuak larrialdiez informatzeko Interneten daukan gunetik hartuak dira. Ezkerrekoak 1918an eta 1919an gripe espainiar deitua eragindako sarraskia gogoratzen du (50 heriotza baino gehiago), garai hartako argazkiekin, oraingo hegazti-gripearen antzeko bilakaera egingo duen beldur baitira agintariak. Ondoan, kanpainaren logoak dio: “Gripe pandemia prebenitu: herritar guztiek ezagutu behar dutena”. Eskuineko argazki handia Nigeriako merkatu batean dago aterata. Hegaztiak dira gizadiaren proteina iturri nagusienetakoa, eta horien kontrola kontu zaila da.


Europar lehenbiziko alarma Britainia Handian piztu zen. Suffolk eskualdean H5N1 birusaren arrasto gardenak kon-firmatu eta milaka indioilar akabatu behar izan zituzten.

Baina lehenetik ere hegazti-gripearen albisteak baziren tantaka, Hunga-riatik, Turkiatik, Egiptotik, Laostik, Vietnambatik... eta batez ere Indonesi-atik iritsita. Herrialde hau dela uste dute adituek H5N1aren foko arrisku-garrienetakoa; eta hemen uholdeek eragindako hondamendiak egoera are larriago ipini du. Europako ateetan, Egiptoko Gobernuak aitortu du otsail hasieran hil zuela gripeak 13. pertso-na. Eta Nigerian ere lehenbiziko hil-dakoen hotsak entzun ziren.

Birus hau ez da birtuala

Europar oso hurbileko jarraipena egi-ten zaio H5N1 birusari: oilategi batean aurkitzen den bezain pronto, bertako hegazti guztiak akabatu eta erre egiten dira, inguru osoan neurri zorrotzak hartzeaz gain. Baina gure-kin –hegazti migrarien bidez– harre-manetan dauden beste herrialde asko-tan horrelako kontrolik ez da. Nigerian dagoeneko heriotz sorta era-gin duen arren, feria eta azoketan hegaztien kontrolak kasik ez da.

Nigeriako Gobernuak bezala, Indo-nesiakoak ere indemnezazio txiki batzuk ematen dizkiete hegazti gaixoak entregatzen dituztenei. Baina animaliek



balio duten baino askoz gutxiago pagatzen diete, horra zergatik askok ez duten deklaritzen. Bestalde, Indonesia batean, zer inporta dio 66 hildakok hainbeste milioi biztanleren artean? “Milaka hiltzen dira hemen –deklartatu du Tri Satria Putri Naipospos albaitari zerbitzuburuak– tuberkulosiaz eta dengeaz, eta halako zalapartarik ez da. Nola sartuko diezu buruan pandemia baten atarian egon gaitezkeela?”.

Bitartean, H5N1 abere gehiagoren artera ari da egokitzen. Britainia Handiko indioilarren kasuan, zientzialariak hipotesi kezkagarri batekin dabilta: hegazti-granja horretara birusa kaio edo antxetek ekarri ote zuten.

Hungariako kasuan hegazti-azokak aipatu ziren, berriro ekarritz eztabaidara aire libreko merkatuen kontua. Baina Japonian azaldu da beste kutsatze bide

kezkagarriagoa: arratoiak. Miyazaki eta Okayama eskualdeetan aterpetutako hegaztiak agertu dira akabatuta, eta ikertzailek beldur dira kutsatzaileak arratoiak izan ote diren. Horregatik batzuen ustez gero eta hurbilago dago birusa gizakitik gizakira jausi egitera iritsiko den eguna. Hori litzateke milaka –edo milioika– pertsona hilko litzukeen pandemiaren hasiera.

H5N1 azkenean mutatu eta pandemia bihurtu daitekeen hipotesiarekin erakunde asko ari da lanean. Adibide bat jartzeko, Internet eta ordenadoreen munduan erreferentzietakoa den *Computerworld* aldizkari elektronikoak hau publikatu zuen otsailaren 12an: “Gripe pandemiak Internet kolapsatu lezake eta mozketak eragin”. Gripe munduan zabalduko balitz, animalien garraioa bakarrik ez litzateke eragotziko: jende

askok erabakiko lukete etxetik lan egitea kutsaduraren beldurrez, eta pentsa liteke enpresa ugarik ere langileak horretara behartuko litzuzkeela.

Horrelako emergentzia batean, nola kudeatu Internet? Une honetan Munduko Osasun Erakundeak 3. mailan dauka pandemiaren alerta, baina nola jokatu hori 6.era jasoko balute? Sareak edukiko duen trafiko izugarriarekin, nondik hasi mozketak egiten? Aditu batek *Computerworld* di esan dioenez, “onargarria ote litzateke horrelako larrialdian sarearen zati handi bat *YouTube*-eko bideoak jaisten erabiltzen jarraitzea?”. Bestalde, trafiko gehitze izugarri horrek areagotu egingo luke sarearen ahuldadea erasoan aurrean.

Pandemiarekiko alertak askoz urrutiago doaz, eta mundu osoan gobernuek antolatuta dauzkate emergentzia taldeak, hegazti-gripea hurbiletik segitzen dutenak. Oraingoz herritarroi burukomin handiegirik ez eragitea deliberatu dutela nabarmena da, gutxi entzuten baita komunikabideetan. Baina arriskua hor dago.

Munduko Osasun Erakundeak badu atal berezi bat epidemia eta pandemiez ohartarazten duena. Hegazti-gripeari dagokionez, nola gauden grafiko nabarmen batez erakusten du. 1. maila izanik arriskurik txikienekoa, eta 6.a pandemia-rena –H5N1 birusa gizakien artean lasai barreiatzea, hondamendia–, une honetan 3. mailan gaude, kolore horian: “Pandemia alerta. Gizakien arteko transmisiorik ez edo oso gutxi”. 4.a izan liteke gizakien arteko kutsaketak ugaritzea, 5.a kutsadura hau zabaltzea. **n**

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 426 624